

## GOBERNU BATZARRA

2017 02 13

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko otsailaren hamahiruan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar</b>	<b>1.- Aurreko akta onartzea.</b> <b>2.- Iurreamendi Egoitza: Urtarrileko faktura.</b>
<b>Idazkaria:</b>	<b>3.- Aldabako Intxur elkartearen 2017ko dirulaguntza.</b>
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	<b>4.- Iñauteritako egitaraua eta aurrekontua.</b>
<b>Kontuhartzaitza:</b>	<b>5.- Abegi: Hitzarmen ekonomikoa.</b>
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	<b>6.- Elkarte Udal Erregistroan izena emateko eskaera.</b> <b>7.-49/2016 eta 1/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.</b>

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko otsailaren 6an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Iurreamendi Egoitza: Urtarrileko faktura.**

Iurreamendi egoitzak urtarrileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- lurreamendi egoitzari ordaintzea urtarrileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **23.782,37** €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 884,12 €  
Elbarrien defizita: 22.898,25 €

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **3.-Aldabako Intxur elkartearen 2017ko dirulaguntza.**

Tolosako Udalak eta Aldaba auzoko Intxur auzo elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen 2014ko urriaren 31n, auzoaren garapeneko helburu zerrenda gauzatzeko. Honen baitan, gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko aurrekontu partida bat jarri du Udalak 2017ko Udal aurrekontuetan.

1100 481.01 17200                      Aldaba-Ubane                      6.000 euro.

Alur Txiki Elkarteak, 2017ko otsailaren 3an, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du, hitzarmenean adierazten den moduan.

- 2017ko ekintzak
- 2017ko aurrekontua
- Ogasun eta gizarte segurantzako ziurtagiriak

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ingurumen teknikariak egin duen txostenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Intxur Elkarteari dirulaguntza ematea gizarte, kirol eta auzoko jaien jardueretarako: Zenbatekoa, 6.000 €.

**BIGARRENA.**- Dirulaguntzaren %50<sup>a</sup> aurreratzea.

**HIRUGARRENA.**- Adieraztea, dirulaguntza zurrizteko, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkiola Udalari.

- Urteko ekintzen behin betiko memoria
- Gastu eta diru-sarreraren likidazioa.

- Fakturak
- Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea elkarteari eta Kontuhartzaitzari.

#### **4.- Iñauteritako egitaraua eta aurrekontua.**

Festa batzordeak proposatuta, aurtengo Iñauteritako jaiek eta jarduerak sortutako gastuei aurre egiteko, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Iñauterietako behin betiko egitaraua eta gauzatu ahal izateko beharrezkoa den **226.272,40** euroko aurrekontua.

**BIGARREN.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Festa arduradunari.

#### **5.- Abegi: Hitzarmen ekonomikoa.**

Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden etxerik gabekoei bizilekua, mantenua eta giza-laguntza emateagatik, Abegi-Goizaldi Elkartearekin sinatuta dagoen hitzarmen ekonomikoa abenduaren 31n amaitu zen.

Gizarte Zerbitzuetako kartaren arabera, aipatzen den zerbitzua 2017an eskualdekoa izango dela jakinarazi da, baina gaia kudeatzeko denbora luzerako izango denez (urte batekoa gutxienez), udaletxeko hainbat departamentuko teknikariek prestatu dituzten txosten juridikoa, ekonomikoa eta gizarte zerbitzukoarten arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Hitzarmen ekonomikoa berria onartzea; iraupena, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduak 31arte.

**BIGARRENA.**- 130.800€-ko dirulaguntza onartzea dagokion partidaren kargura.

**HIRUGARRENA.**- Kontratuen arautegiaren arabera, datorren urterako zerbitzua dagokion eran kudeatzeko ahaleginak egitea.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Abegi Elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

#### **6.- Elkarte Udal Erregistroan izena emateko eskaera.**

Olarraingo “**LAGUN ARTEA**” elkarteak eskaera egin du Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan izena emateko.

Ikusita aipatu elkarteak betetzen dituela ezarrita dauden baldintzak, eta Gizarte Politikako batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea “**LAGUN ARTEA**” Elkarteak egin duen eskaera, Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan sartzeko.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea “Irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroaren ordezkariari, Gizarte Politikako departamentuari eta **LAGUN ARTEA** elkarteari.

#### **7.- 49/2016 eta 1/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **49/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **347.345,45 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **49/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **1/2017** faktura zerrenda aurkeztu du; **39.933,73 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 1/2017 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**